

Kabalkadak

Kabalkadak aspalditik ezagutzen diren toberen hondarrak dira. Kabalkadak toberetan egiten ziren paradak bezalakoak dira karroak izan gabe. Hogeigarren mendearen hastapenean Faustin Bentaberryk toberetatik bereizi zituen kabalkadak herrietako gertakizun handietan karriketan desfilean baliatzeko. Toberetan, dantzarien multzoak Bolan dantza eta Martxa izeneko musika doinuekin dantzatzen zuten. Geroztik forma bera atxiki du. Batzuetan ikusle anitz zirelarik desfilean dantzariak tokian egoiten ziren. Donibane Garaziko karrika hertsietan Erdizka Lauetan (edo entrexatak) egiteko inguruan ez baitziren kokatzen ahal dantzariak bi lerro zuzenetan dantzatzen zituzten.

Gaur egun ere kabalkadak sosa biltzeko helburua atxiki du. Ez baitugu gehiago Toberarik ikusten, desfileak herrietako festetan, ihauterietan edo gertakizun handietan egiten dira.

Dantzak

1. Martxa 1
2. Martxa 2
3. Galtxetaburu
4. Bolan dantza
5. Entrexatak
6. Makilariena 1
7. Makiariena 2
8. Eskualdunak
9. Sorginak
10. Dantza korda
11. Dantza kordatik jauzia

Zapurrak, Xigantiak, Besta Gorriak eta **Makilaria** aurretik dira eta segizio zabala dator atzetik: **Bolantak, Basa Andereak, Hartza, Dantzari-Emakumeak** eta **Gizon-Emakume bikoteak**

Itsasuko Kabalkada

Kabalkadak lehenago Tobera-mustren oroitzapenak dira. Lehenago, senar-emazten arteko gataskak, alargunen arraezkontzak eta gisa hortako gaiak ziren salatzen plaza betean tobera mustren bidez.

Gaiak aldatu dira, baina forma (desfile bat "munstra", auzi bat eta dantzak) hein batean beiratu da, bereziki Baxenabarren, Garazi eta Baigorri. Lapurdi barnealdean, usaia atxiki zuten Luhuson 1950 urteak artino, eta oroz gainetik Makean 1980 artino nunbeitan. 1990-2010 urteetan, kabalkadak berriz abiatu dira Itsasun, Lekornen, Luhuson, Heletan, Bidarrain, Irisarrin, batzutan mende baten geldialditik landa.

Itsasun, Tobera mustra edo Kabalkadak izan dira ondoko urte hauetan : 1849, 1853, 1859, 1865, 1876, 1883, 1889 (azkenean debekatua), 1892, 1899, 1937, 1992, 1994, 1997, 2001, 2007, 2012 eta azkenik 2019an.

PERTSONAIAK

Banderaria

Kapitaina eta bere emaztea (zaldiz)

Lieutenant-ea eta bere emaztea (zaldiz)

Oilarrak

Zapurrak

Banderariak

Makilaria

Soinulariak

Bolantak

Basa-andereak

Bolantak

Dantzarisak

Andere xuriak

Kaxkarotak

Dantzarisak

Hasi berriak (Dantzari gazteak)

Lehengo gaztiak (Dantzari beteranoak)

Auzitegia (Tribunala)

Zirtzilak

Musikoak:

XIX. mendearen azken laurdena arte, toberen musika xirula, ttunttuna, arrabita eta atabalaren esku zen. Orduan sartu ziren klarineta, eta gero kobreak eta akordeonak, soinuari indar eta kemen gehiago emanaz.

Les parades charivariques de la vallée de la Nive étaient accompagné

Antzerkilariak:

Antzerkiko pertsonaiak orotarikoak dira, beztituen artean dantzatzen eta musika jotzen ez dutenen taldea hain zuzen. Herriko langileriaren eta basapiztien arteko karikatura identifikatzen dute printzipalean. Auzitegiko pertsonaiak, zirtzilak, eta beste barne, huna hemen Antzerkilari nagusiak, ixtorioa borobilduko dutenak.

Azken urtetako kabalkadak

- 1976: Baigorri
- 1988: Eiheralarre
- 1991: Amikuze
- 1992: Itsasu
- 1994: Itsasu
- 1997: Itsasu
- 2001: Itsasu
- 2002: Luhuso
- 2003: Heleta
- 2007: Itsasu
- 2009: Donapaleu
- 2011: Izpura
- 2012: Irisarri
- 2014: Urruña, Lekorne
- 2016: Makea, Sara
- 2016: Sara
- 2017: Bidarrai
- 2018: Uztaritz
- 2019 Itsasu
- 2019 Aiherra